
7 UDAL ADMINISTRAZIOA

PASAIAKO UDALA

Behin betiko onartzea, jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazio, kontzesioa e.a. arautzen duen ordenantza, ibilgailuak garajeetara sartzeko eta aparkalekua gordetzeko.

PASAIAKO UDALA

Behin betiko onar-tzea jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazioa, kon-tze-sioa eta seinalizazioa arau-tzen duen ordenan-tza, ibilgailuak. garajeetara sar-tzeko eta aparkaleku erreserbak egiteko.

Udalba-tzak 2009ko -otsailaren 2an izandako bilkuran aho batez ondoko Hiri Mugikortasuneko Informazio Batzor-deako diktamina onartu du.

1. «Jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazioa, lizen-tzia ematea eta seinalizazioa arau-tzen duen Ordenan-tza»ren hasierako onarpenari buruzko iragarkia argitaratu ondoren eman zen 30 eguneko epea bukatu da, eta herritarrek ez dute alegaziorik aurkeztu; beraz, ordenan-tza hori behin betiko onartu-tzat emango da. Hala ere, -batzorde honek, batzor-deburuaren proposamena ain-tzat hartuta, gaurko bileran onartu du 19. artikulua 5. atala ia osorik ken-tzea. Artikulu horren testua hau zen:

«lizen-tzia baliogabe-tzea eta seinaleak berehala ken-tzea. Gertakarien larritasunaren arabera, aztertuko da eska-tzailea gaitasunik gabe uztea, etorkizunean ordenan-tza honetan araututako baldin-tzak eska-tzeko, bi urtez».

Ondorioz, Ordenan-tza horren 19.5 artikulua honela gera-tzen da:

«5. Ordenan-tza honen arau-hausteak isunekin zigortuko dira. Isunak eskala honen arabera ezarriko dira:

— Arau-hauste arinak: 50 € eta 150 € bitarteko isunak.

— Arau-hauste larriak: 150,01 € eta 300 € bitarteko isunak.»

2. Behin betiko onar-tzea Jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazioa, lizen-tzia ematea eta seinalizazioa arau-tzen duen Ordenan-tza ibilgailuak garajeetara sar-tzeko eta aparkaleku erreserbak egiteko; aurreko puntuan adierazitako puntua kenduta.

Ordenan-tza-ren testu osoa ondokoa da:

Jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazioa, lizen-tzia ematea eta seinalizazioa arau-tzen duen ordenan-tza; ibilgailuak garajeetara sar-tzeko eta aparkaleku-erreserbak egiteko.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

ATARIKO ARTIKULUA

Udal ordenan-tzen hizkun-tza-ren generoa dela eta, inor ez diskrimina-tzeko helburuarekin, oro har gaztelaniako ber-tsioan femeninoa erabiliko da per-tso-nez ari garenean; herritar, biztanle, erabil-tzaile, eska-tzaile, titular edo beste edozein substantibo edo adjektiborekin doala ere.

1. artikulua. Helburua.

Ordenan-tza honen helburua da jabari publikoaren erabilera pribaturako tramitazioa, lizen-tzia ematea eta seinalizazioa arau-tzea; ibilgailuak gorde-tzeko lokaletara sar-tzeko, eta ezintasunen bat duten per-tso-nen ibilgailuetarako gune publikoak erreserba-tzeko.

2. artikulua. Definizioak.

Ibilgailuak sar-tzea esaten dugunean uler-tzen da: Espazio publiko bat erabil-tzea bide publikotik ibilgailuak gorde-tzeko lokaletara sar-tzeko, aparkaleku-erreserba izan edo ez izan.

Aparkaleku-erreserba esanda uler-tzen da: Bide publikoan espazio bat mugatu eta seinaleak jar-tzea, eta adierazten den aldian ibilgailuak bertan aparka-tzeko debekua ezar-tzea.

Ezinduen-tzako aparkaleku-erreserba esanda uler-tzen da: Bide publikoan espazio bat mugatu eta seinaleak jar-tzea, eta bertan baimena duen edo bereizgarri egokia duen ibilgailuak ez beste guztiek aparka-tzeko debekua ezar-tzea.

3. artikulua. Izapide-tzeko baldin-tza orokorrak.

Lizen-tzia eskura-tzeko, eskaera Alkate-tzari egin behar zaio eta ida-tziz aurkeztuko da udal erregistroan.

Eskaera horrekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Eska-tzailearen izen-abizenak, nortasun agiria, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia. Inoren izenean ari bada, hori egiaztatu beharko du.

— Lizen-tzia edo baimena eska-tzen den lokalen irekiera-lizen-tzia.

— Lokalen planoak. Horietan adieraziko da ibilgailuak non gorde-tzen diren; edo, hala badagokio, zama-lanak non egiten diren.

— Eska-tzaileak datu hauek adierazi behar ditu: Jardueraren ordutegia, eskatutako espazioa, zein motatako zama-lanak eta zein maiztasunekin egiten diren.

— Ezinduen ibilgailuetarako eska-tzen diren berariazko agiriak –aurrerago zehazten dira.

II. KAPITULUA

1. ATALA

4. artikulua. Espazio publikoa erabil-tzeko baimena, ibilgailuak gorde-tzeko lokaletara sar-tzeko, espazio-erreserbarik ez dutenean.

Udalak lizen-tzia emango du ibilgailuen joan-etorrirako ez den espazio publiko bat erabil-tzeko, ibilgailuak gorde-tzeko lokaletara sar-tze-arren, horietan erreserba beharrik ez dagoenean; baldin eta lokalak dagokion irekiera-lizen-tzia badu.

5. artikulua. Lizen-tzia ematea.

1. Dagokien zerbi-tzuek egindako txos-tena kontuan hartuta, Alkate-tzak edo ordezeko organoak, arrazoitutako ebazpen baten bitartez, lizen-tzia eman edo ukatuko du; eta Zerga Ordenan-tze-tan ezarritako tasa ordaindu beharko da.

2. Behar bezala betetako eskaera aurkeztu eta hilabete pasa-tzen bada berariazko ebazpenik jaso gabe, lizen-tzia ukatu-tzat hartuko da.

6. artikulua. Lizen-tziaren indarraldia.

Lizen-tzia abenduaren 31 arte emango da, eta automatikoki luzatuko da; non eta udalak edo interesdunak ez dioten beste alderdiari jakinarazten luzatu nahi ez dutela, -gutxienez bi hilabete lehenago.

Nolanahi ere, lizen-tzia bukatu egingo da, lokalari irekiera-lizen-tzia eman -zitzaion jarduera eteten denean.

7. artikulua. Seinaleak.

Kasu honetan lizen-tziak ez du seinalerik izango.

2. ATALA

8. artikulua. Gune-erreserbak, ibilgailuak lokaletara sar-tzeko.

Udalak ibilgailuak pasa-tzeko gune publiko baten erreserba eman dezake, eta bertan aparka-tzeko debekua ezarri; kasu hauetan:

1. Lau gurgpileko ibilgailuetarako aparkalekuak dituzten eta ezaugarri hauek bete-tzen dituzten garajeen jabe direnek: 3.500 kg-tik beherako zama duten hiru automobil edo furgonetan-tzako ahalmena, baldin eta kanporako irteera librea badute, lokal berean dauden beste ibilgailuen aparkaleku erago-tzi gabe.

Ordenan-tza honen aplikazioa dela-eta, lau gurgpileko automobil baten aparkalekuaren baliokide izango dira 75 m³-tik beherako ahalmena duten sei motor edo 75 cm³-tik gorako ahalmena duten lau motor.

Mugakide diren garaje partikularretarako lokaletan, ibilgailu bakarra gorde-tzen bada bertan, eta ahalmena aurreko atalean aipatutako ezaugarriak dituzten hiru ibilgailuetarako edo gehiagotarako badu. Kasu horretan, lokal horien aurrean aparka-tzeko debekua badago, lokalei pasabide-lizen-tzia eman ahal izango zaie banaka.

Bi kasu horietan pasabide-erreserba izango dute, hau da, eguneko 24 orduetan, laneguna nahiz jaieguna izan.

2. Industria eta merkataritza-establezimenduen jabeek; baldin eta haien jarduerarako beharrezkoa bada automobilak sar-tzea eta atera-tzea, edo zamalanak oso maiz egitea edo zama handien zamalanak egitea, edo establezimendu-motagatik barnean nahitaez zamalanak egin behar izatea.

Industria edo merkataritza-jardueren titularrei pasabide-erreserba ematen zaienean, pasabide hori industria-ordutegirako izango da, hau da: Lanegunetan (astelehenetik ostiralera) 8etatik 13etara eta 16etatik 20etara.

Soilik arran-tza-jarduera duten enpresei emango zaie 24 orduko pasabide-erreserba, pasabidearen beharra behar bezala justifika-tzen badute.

9. artikulua. Erreserba-lizen-tzia ematea.

1. Udal-tzaingoak egindako txos-tena kontuan hartuta, Alkate-tzak edo ordezeko organoak, arrazoitutako ebazpen baten bitartez, lizen-tzia eman edo ukatuko du; eta Zerga Ordenan-tze-tan ezarritako tasa ordaindu beharko da.

2. Behar bezala betetako eskaera aurkeztu eta hilabete pasa-tzen bada berariazko ebazpenik jaso gabe, lizen-tzia ukatu-tzat hartuko da.

3. Pasa-tzeko erreserba-lizen-tzia emateko baldin-tza orokorrak:

— Espazioa lokalera sar-tzeko atearen zabalaren berdina izango da, oro har, eta gehienez 5 metro izango ditu; muga hori zabaldu ahal izango da, baldin eta ibilgailuek bertara sar-tzeko bira-erradio handiagoa behar dutela justifika-tzen bada, esaterako sar-tzeko eta atera-tzeko ate bereziak dituzten lokaletan.

— Denborari dagokionez, lizen-tzia eman ahal izango da:

— Soilik laneko orduetan, hau da, astelehenetik ostiralera 8etatik 13etara eta 16etatik 20etara.

— 24 orduko pasabideetan ibilgailuak sartu eta atera-tzeko baimena dago eguneko 24 orduetan.

Bi kasuetan, onartutako ordutegiaren barruan ezingo da ibilgailurik aparkatu edo geratu, ezta pasabide-erreserbaren titularrarena ere.

10. artikulua. Erreserba-lizen-tziaren indarraldia.

Erreserba-lizen-tziaren indarraldia urtebetekoa izango da, eta automatikoki luzatuko da; non eta udalak edo interesdunak ez dioten beste alderdiari jakinarazten luzatu nahi ez dutela, -gutxienez bi hilabete lehenago.

Nolanahi ere, lizen-tzia bukatu egingo da, lokalari irekiera-lizen-tzia eman -zitzaion jarduera uzten denean.

11. artikulua. Seinaleak.

1. Udalak pasabide-erreserbaren titularrei emango dizkie aparka-tzeko debekua eta mugaren amaiera adierazten dituzten plakak, titularrek ordaindu ondoren.

Eraikinarean fatxa-dan eta ibilgailuen-tzako erreserbatutako pasabidearen bi muturretan bi plaka (R-308) jarriko dira, eta horietan honako argibide hauek zehaztuko dira: Lizen-tzia-zenbakia, erreserbaren erabil-tzaile-mota, eta zein egun eta ordutarako balio duen.

Zenbaitetan, hainbat arrazoi direla medio, ez bazaio egoki irizten fatxa-dan pasabide-plakak jar-tze-ari, euskarri bertikal galbanizatuan jarri ahal izango dira plakak; zirkulazio-seinaleen-tzako eredu estandarraren arabekoak izango dira, eta plaken beheko aldearen -gutxienerako altuera 2 metrokoa izango da, espaloien zoladuratik gora neurtuta.

2. Interesdunak ibilgailuak pasa-tzeko zintarriak beharatu ahal izango ditu, bai ordutegi mugatuko pasabidea denean, eta baita 24 orduko pasabidea denean ere. Horretarako, aurrez obra-lizen-tzia eskatu beharko du, indarrean dagoen araudian arau-tzen denaren arabera. Zintarria behera-tzean, gal-tza-daren sestratik 3-5 cm-ra jarriko da, ez da kalterik eragingo euri-urak husteko arekan, eta alboko bide publikoko zoladura eta zintarri mota bera erabiliko da.

3. Gal-tza-daren eta arekaren arteko muga zehazteko; 15 cm zabaleko zerrenda edo laukizuzen hori bat margotu beharko da, eta bi zerrenda diagonal, zabalera eta kolore berekoak.

4. Pasabide-erreserbaren titularrak pasabidearen segurtasun-baldin-tzak mantendu behar ditu, oinezkoen segurtasuna berma-tze-arren; eta zoladura bere kontura berritu beharko du, udalak egoki deri-tzo-nean.

5. Lizen-tzia iraungi-tzen denean; titularrak udalari erreserbaren seinaleak entregatu beharko dizkio, 30 eguneko epean; eta udalaren jabari publikoa leheneratu behar du, hau da, espaloia beharatu baldin bazuen, hori goratu, lehen adierazitako epe berean.

III. KAPITULUA

12. artikulua. Ezinduen ibilgailuetarako aparkaleku-erreserba.

1. Oro har, ezinduek izango dute aparkaleku-erreserba eskura-tzeko aukera, mugi-tzeko gurpildun aulkia, makuluak edota auto egokitua erabil-tzen dituztenek, alegia. Pasaiaiko udalerriko biztanle izango dira egitez eta zuzenbidez eta artikulua hauetan zehazten diren baldin-tzak bete beharko dituzte. Horrez gain, ez dute bizi diren eraikinean garajerik izan behar, edo garajeak ez ditu bete behar ezarritako irisgarritasun-baldin-tzak.

2. Salbuespen gisa, erreserba eskuratu ahal izango dute egitez eta zuzenbidez Pasaiaiko biztanle izan eta euren ardurapean mugi-tzeko gurpildun aulkia behar duen norbait dutenek (adinekoa, seme edo alaba, bikotekidea); baldin eta hura ere eska-tzailearen -etxe berean bizi bada egitez eta eskubidez, eta artikulua hauetan zehaztutako baldin-tzak bete-tzen baditu.

3. Aparkaleku-erreserba eskuratu ahal izango dute Azkuene eta Eskalantegi kaleetako Donostiako aldean bizi diren ezinduek, Pasaian erroldatuta ez daudenek; betiere zehaztutako gainerako baldin-tzak bete-tzen badituzte.

Bi eska-tzaile edo gehiago daudenean, lehentasuna emango zaie bizilekua gertuen dutenei, hau da, Pasaian erroldatutako aldeko diskriminazio positiboa gauzatuko da.

13. artikulua. Ezinduen ibilgailuetarako aparkaleku-erreserba eskura-tzeko baldin-tzak.

1. Nahikoa ezintasun-maila duen egiazta-tzeko, honako irizpide hau erabiliko da: «garraio publikoak erabil-tzeko zailtasunak zehazteko baremoa»; abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuaren 3. Eranskinean jasota dagoena; ezintasuna aztertu, aitortu eta kalifika-tzeko prozedurari buruzkoa.

Eska-tzailearen ezintasunak eranskin horren A, B edo C motakoa izan behar du; edo D eta H kasuetan hamabi puntu batu.

2. Ezintasunen bat duten per-tso-nen ibilgailuetarako aparkaleku-erreserba eskura-tzeko, interesdunek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) 3. artikuluan jasotako agiri orokorrak.

b) Ezinduaren edo haren arduradunaren gida-baimenaren originala eta fotokopia.

c) Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren originala eta fotokopia.

d) Ibilgailuaren aseguru-poliza eta azken ordainagiria.

e) Artikulu honen lehenengo atalean aipatutako ezintasun-maila duela ager-tzen duen ziurtagiria, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunak egina, aurrez balorazio- eta orientazio-unitateak egindako balorazioaren arabera.

3. Agiri guztietan helbide bera agertuko da.

4. 12. artikuluko bigarren atalean aipatutako kasuan; aurreko agiriez gain, ezintasuna duen per-tso-naren nortasun-agiri originala eta horren fotokopia aurkeztu behar dira, eta bertako helbidea ere aurreko agiri guztietako bera izango da.

5. Erreserba eska-tzailearen etxe-tik ahalik eta gertuen jarriko da, tokiaren ezaugarriak kontuan hartuta.

14. artikulua. Lizen-tziaren indarraldia.

Lizen-tziak lau urterako emango dira.

Ez dago adierazi gabeko luzapenik, beraz, epe hori bukatu ondoren erreserbak iraungi-tzat emango dira, non eta interesdunek aurrez luzapena eska-tzen ez duten.

15. artikulua. Seinaleak.

Udalak aparkaleku-erreserba seinaleztatuko du, eta erreserba eskuratu duen ibilgailuaren matrikula ida-tziko du.

16. artikulua. Lizen-tziak alda-tzea.

Udalak erreserbak kendu, tokiz mugitu edo murriztu (espazioa nahiz denbora) -ditzake, baldin eta ez badira nahikoa erabil-tzen, trafikoa oztopa-tzen badute edo ibilgailua ez bada erabil-tzen aparkaleku-erreserba eman zaion helburuarekin.

IV. KAPITULUA

17. artikulua. Aurreko lizen-tzia edo baimenen titularrek dauzkaten betebeharrak.

1. Ezinduen ibilgailuetarako erreserbei dagokienez; titularrek edozein aldaketa jakinarazi behar dute; bai ibilgailu edo matrikula aldaketak, eta baita lizen-tzia emateko edozein baldin-tza-ren aldaketa. Adierazitakoa bete-tzen ez badute, lizen-tzia ezeztatu egingo da.

2. Ibilgailuak gorde-tzeko irekiera-lizen-tzia duten lokalei dagokienez; titullarrak udal-tzainei eta udal teknikariei lokalera sar-tzen -utziko die, egin beharreko egiaztapen eta/edo ikuskapenak egiteko.

3. Halaber, udalari jakinaraziko dizkio lokal, industria-establezimendu edo merkatari-tza-establezimenduaren titularitate aldaketak edo lizen-tzia emateko baldin-tzen aldaketak. Bestela, lizen-tzia baliogabetu egingo da.

4. Halaber, pasabide-erreserbari uko egiten badiote, jakinarazi egin behar dute.

5. Titularitatea aldatuz gero, edo erreserba zabaldu, murriztu eta tokiz aldatuz gero; emandako lizen-tzia berrikusi egingo da.

6. Ekitaldi bakoi-tzean indarrean dauden Zerga Ordenan-tze-tan jasotako tasak ordaindu behar dituzte.

18. artikulua. Lizen-tzia amai-tzea, baliogabe-tzea, ezeztat-tzea eta iraungi-tzea.

1. Lizen-tziak amaituko dira horiek emateko baldin-tzak alda-tzen direnean, eta nolnahi ere, lokalaren jarduera edo helburua alda-tzen denean.

2. Lizen-tziak baliogabetu ahal izango dira:

— Dagokion Zerga Ordenan-tzan adierazitako tasa ordain-tzen ez bada.

— Oro har, ordenan-tza honetan jasotako arauetan titularrari ezar-tzen zaion edozein betebehar bete-tzen ez bada.

3. Pasabide-erreserbako lizen-tziak baliogabetu ahal izango dira:

— Ibilgailuen pasabidea hobe-tzeko edo eraiki-tzeko obrak egiten ez badira edo gaizki egiten badira.

— Erabilitako zoladura behar bezala manten-tzen ez bada.

— Ibilgailuen pasabidea gaizki erabil-tzen bada edo ez bada erabil-tzen.

— Lokalak eskatutako baldin-tzak ez baditu edo titularrak adierazitako helburuekin erabil-tzen ez bada.

4. Pasabide-erreserbako lizen-tzia baliogabe-tzeko, aldebiko espedientea bideratu beharko da, eta interesdunari -entzuna izateko aukera emango zaio. Espedientea lizen-tzia eman zuen organoak erabakiko du.

5. Lizen-tziaren indarraldia amai-tzean, udalak seinaleak kenduko ditu, hamabost eguneko epean.

6. Ezinduen ibilgailuetarako aparkaleku-erreserba automatikoki indarrrik gabe geratuko da, eta udalak seinaleak kenduko ditu; titularra hil-tzen bada edo lizen-tzia eskura-tzeko baldin-tza-ren bat desager-tzen bada.

V. KAPITULUA

19. artikulua. Zehapen-prozedura.

1. Ordenan-tza honen arau-hauste izango dira: Aurreko artikuluan zerrendatu ditugun amai-tzea, baliogabe-tzea, ezeztat-tzea eta iraungi-tzea dakarten arrazoiak; eta baita ordenan-tza honen 17. artikuluan aipa-tzen diren betebeharrak ez bete-tzea ere.

2. Arau-hauste arinak dira:

— Ezinduen-tzako aparkaleku-erreserbaren titularrak udalari ez jakinaraztea ibilgailu eta matrikula aldaketa, edo lizen-tzia emateko eska-tzen den edozein baldin-tza-ren aldaketa.

— Lokaletara sar-tzeko erreserbaren titularrak udalari ez jakinaraztea lokalaren titularitate aldaketa, edo lizen-tzia emateko eska-tzen den edozein baldin-tza-ren aldaketa.

— Udal-tzainei eta udal teknikariei ibilgailuak sar-tzeko lokaletara, merkataritza-lokaletara edo industria-lokaletara sar-tzen ez uztea; egin beharreko egiaztapen eta/edo ikuskapenak egiteko.

— Pasabide-erreserbari uko egin zaiola ez jakinaraztea.

— Ibilgailuen pasabidea eraiki-tzeko obrak ez egitea edo gaizki egitea, edo seinaleak ez jar-tzea edo gaizki jar-tzea.

— Erabilitako zoladura behar bezala ez manten-tzea.

— Emandako lizen-tzia amaituz gero, espaloia eta zintarria ez lehenera-tzea.

3. Arau-hauste larriak dira:

— Ordenan-tza honetako edozein lizen-tziaren iruzurrezko erabilera.

4. Ordenan-tza honetan jasotako arauak urra-tze-agatik zehapenak ezar-tzeko bideratu behar den prozedura abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuan aurreikusitakoa da; eta Errege Dekretu horretan araututa ez dauden kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, edo horren ordezko araua aplikatuko da.

5. Ordenan-tza honen arau-hausteak isunekin zigortuko dira. Isunak eskala honen arabera ezarriko dira:

— Arau-hauste arinak: 50 € eta 150 € bitarteko isunak.

— Arau-hauste larriak: 150,01 € eta 300 € bitarteko isunak.

6. Bidera-tzailea udal-tzainburua edo berak izenda-tzen duen ordezkoa izango da, eta errefusatu egin ahal izango da, 30/1992 Legeko 28. eta 29. artikuluetan ezarritako kasuetan.

7. Ordenan-tza hauetan jaso-tzen diren arauen urra-tzea zigor-tzeko eskudan-tzia Alkate-tzari dagokio; eta eskudan-tzia hori eskuordetu ahal izango du, aplika-tze-koa den legeriarekin bat.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenan-tza hau indarrean sar-tzen denean, udalak idazki bat bidaliko die pasabide-erreserbako lizen-tzia duten per-tso-nei; eta sei hilabeteko epea emango die, ordenan-tza honetako artikuluetan jasotakoari egoki-tzeko.

Ezinduen ibilgailuetarako aparkaleku-erreserbei dagokionez; aurreko ordenan-tzan xedatutakoaren arabera (1999ko maia-tza-ren 17an argitaratua), ordenan-tza honetan ezarritako baldin-tzak bete-tzen dituztela egiaztatu ez badute, hilabeteko epea emango zaie baldin-tza horiek bete-tzen dituztela egiaztatu-tzeko. Hori egin ezean, emakida ezeztatu eta seinaleak kenduko dira.

XEDAPEN INDARGABE-TZAILEA

Indargabetu egiten da ezinduek aparkaleku-erreserba eskura-tzeko araudia, 1999ko maia-tza-ren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

AZKEN XEDAPENAK

Alkate-tzak dekretu bidez eguneratu -ditzake ordenan-tza honen 19. artikuluan aurreikusitako zehapenen zenbatekoak, Gipuzkoan Kon-tsumo Prezioen Indizeak duen aldaketaren arabera.

Ordenan-tza hau indarrean sartuko da udalak behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitara-tzen denetik hamabost lanegunera, Toki Jaurbidearen Oinarrien 7/1985 Legearen (apirilaren 2koa) 70. artikuluan eta horrekin lotutako 65.2. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Pasaia, 2009ko -otsailaren 10a.—Alkatesa.

(356) (1677)